

EMIL ZATOPEK

# «Irabaztea ona da gozatzeko baina galtzea ere bai pentsatzeko»

**G**erraondoko Olinpiadetako garaipen sonatuek egin zuten 'giza lokomotorea', Emil Zatopek, munduan famatu. Helsinkiko bere balentria —5.000 eta 10.000 metroko lasterketak ez ezik maratoia ere irabazi zuen 1952ko Olinpiadetan— ez du oraino inork errepikatu. Ofizioz militarra —koronel izatera heldu zen—, bere emaztearekin Pragan bizi den 68 urteko pentsionista da gaur egun. Zubietako krossa medio etorri da Donostiara.



MANOLO